

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko abenduaren 15a

*



Iruñea eta euskara, banaezinak

■ Iruñeko Udalak *Iruña eta euskara* lelopean antolatutako jardunaldiak datorren astelehena eta asteazkena bitartean egingen dituzte Nafarroako Museoa. Iruñearen eta euskararen arteko harremanaren historia, gaur egungo egoera eta

etorkizunari begira egin beharreko hizkuntz plan-gintza izanen dira eztabaidagai egun hauetan, hogeitabat hizlariren artean. Jardunaldien helburua, halaber, euskara Iruñeko hizkuntza ere badela plazaratzea da. ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Azkenean ailegatu da euria. Bere zain hainbertze denbora egon ondoren, euriak eta hotzak elkarri eskutik helduta egin digute bixita. Hotzarena da okerrena: ohatzean egundoko manta piloa jarri behar, beraien pisua ezin jasanez; jaka, jertse lodia, eskularruak... jantzi gabe ezin kanpora atera, batere eroso ez dena, toki itxietan dena soberan baitugu (batez ere ostatuetan); matelak, sudurra eta behatzak tomateak baino gorriago, ia izoztuta. Hala ere, hotzak abisu on bat

Hotzak dakarrena...

dakar berekin: Gabonen etorrera. Armairutik neguko arropak berreskuratzen hasi orduko nori ez zaizkio Gabonak burura etortzen? Egia erran, hotzak ezezik telebistak ere badu zerikusirik horretan. Azaroaren hasieratik panpin, lurrin eta jostailu modernoenen iragarkiak behin eta berriz agertu zaizkigu pelikula guztien tartean, eta hauek dira Gabonen aurkezle hoberenak. Geure artean, pixa eta kaka egiten duen panpina *pasada* bat da, ezta? Beno, harira bueltatuz,

Gabonen usaina hurbiltzen ari da, batez ere anaiak prestatzen dituen txipiroien usain goxoa, eta turroiarena eta txanpainarena... Aurten berriz ere, baserritarrez jantzita aterako gara kanpora gure Olentzaro bizkarrean dugula eta, Urtezahar gaueko hamabi ezkila hotsen ondotik, urte berri ona opa egingo diegu guztiei. Aurten berriz ere, gogoan izango ditugu geurekin ez daudenak, baina hori ez da Gabonetan bakarrik egiten dugun zerbait. X

✂ GURE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Iruñea: Pintzel aretoan Carlos Lopez margolariaren lanak dau- de ikusgai abenduaren 29a arte. Erakusketa, 10.00etatik 13.30- etara eta 16.30etatik 20etara egonen da zabalik astegunetan eta larunbatean 10.00etatik 13.30etara bitartean. Igandeetan erakusketa itxia dago.

KONTZERTUAK

Etxarri-Aranatz: Nahi ta Nahiez taldeak kontzertua eskainiko du bihar, gaueko 11.00etan, Zulo tabernan.

Gares: Barricada taldeak bere lan berria aurkezteko kontzertua eskainiko du bihar Fundamental aretoan, gaueko 11.00etan.

Iruñea: Escarabajos taldeak Terminal aretoan joko du, heldu den ostegunetan gaueko 9.30etan.

Iruñea: Pamplonesa orkestrak Eguberrietako kontzertua eskainiko du Nabarrería Kultur Aretoan, 12.30etan igande honetan. Emanaldian Strauss-en eta Bucolon-en lanak joko dituzte.

ZINEMA

Tafalla: Español zinema aretoan Star Trek filmea emanen dute bihar, Haur Zikloaren barruan. Arratsaldeko 5.30etan izanen da eta sarrera 100 pezetakoa izanen da. Pelikula bera igandean, abenduak 17, emango dute, toki berean arratsaldeko 3.45etan.

Iruñea: Nafarroako Ateneoak antolatuta Eisenstein zinemagilearen *Urria* filmea piano, perkusio eta gitarraren musikarekin lagundua eskainiko da. Emanaldia Gaiarre Antzokian izanen da 20.00etan.

BERTSO SAIOA

Zugarramurdi: Xabier Amuriza eta Jose Mari Peñagarikanok bertso kantari ariko dira Armua ostatuan izanen den bertso afarian. Ekitaldia bihar 21.00etatik aitzina izango da.

BESTELAKOAK

Etxarri-Aranatz: Urbasa-Andiari buruzko bideo emanaldia izanen da Mikel Nazabalen azalpenekin, bihar arratsaldeko 7.00etan. Pelikula Udaberri elkartearen eskainiko da eta gaztain eta guzti izanen dira.

Etxarri-Aranatz: Koldo Amestoik haurrendako ipuiak kontatuko ditu, igande honetan arratsaldeko 6.00etan Hartzabal elkartearen.

Etxarri-Aranatz: Orritz dantza taldeak igandean 13.00etan dantza saioa eskainiko du herriko plazan.

Iruñea: Donibane auzoko AE-Kren Irrintzi euskaltegian *The Embrun Ironma* bideo emanaldia izanen da gaur arratsaldeko 8.00etan. Ondoren solasaldia egongo da Sabin Mujika eta Nerea Martinezekin.

nafar kronika

Alberto Barandiaran

Nafarroako taldea

Askorentzat *Rock and roll gaua* izeneko kanta zoragarria izan zen Barricadaren lehen berria, entzun genuen lehen aldia. Disko hark ulertarazi zigun ordura arteko *heavy* guztia ez genuela gustukoa izan ez genuelako ulertzen, ezin genuelako antzeman hitz zaratsuen atzetik zegoen mezua. Txantreakokoen artilleriari esker izan genuen auzo konfliktiboaren berri, jakin izan genuen Iruñeko munduaren hainbat kontu, eta, batez ere —inportantea—, buruz ikasi genuen kanta mordo bat. Jarraitu genituen, jarraitu ere, eta beti harritu gintuzten kanta berriekin. Madrilen egokitu zitzaizgun kontzertu bat, eta hangoek —Valle del Kasekoek, batez ere— zieten miresmenak

txunditu gintuen. Hatak Iruñekoak direla diote, ez direla mugitzen ezta munduko urre guztia emanda ere, jakinda ere Madrilerá edota Barzelonara joanez gero bertakoen harrerak ziurtatzen zizkietela mundu honetako merezimendu guztiak.

Nafarroako taldea da, dudarik gabe. Urte hauetan guztietan, abesti ezin ordainduzkoak eman eta musikologia oso bat sortu dutenak. Beren kantei esker gitarra eskuetan mila aldiz hartu dugu. Orain singleak aurkeztu dituzte. Hainbeste urtetan izorratutako diskoetan gustukoak genituen kantak, dagoeneko entzun ezin ditugunak. Denak batera, bilduta, eta gaur egungo Barricadak —betikoak— grabatuta. Ongi etorri, eta segi aurrera.



asteko pertsonaiak



Javier Garro
Osasunako presidentea

■ Javier Garro Osasuna futbol taldeko presidentea joan den azaroaren 6an Pedro Senosiain eta Juan Luis Irigarai osatutako batzordean berari zegozkion botereak delegatu zituen, eta orain berreskuratu nahian dabil. Osasunako presidente gisa zituen botereak berriro ere bereak izateko, Garrok iragan asteartean berak delegatutako eskumenak berreskuratzeko notarioaren aurrean egindako eskakizuna aurkeztu zion taldeko zuzendaritza batzordeari. Presidentearen jarrerak bazterrak astindu ditu, Garrok egindakoa legez kanpoko delá baitiote zuzendaritza batzordeko kideek. Hauen ustez, Osasunako buruak hartutako erabakia ez zen botere delegazio hutsa izan, baizik eta batzordeak hartutako erabakia; beraz, batzordeak berak bakarrik itzultzen ahal dio utzitako boterea.



Antonio Pascual
Iruñeko polizia ohia

■ Antonio Pascual GALEn garaian Iruñeko polizia izandakoak Barne Saileko diru berezietatik 14 milioi pezeta kobratu zituen. Ordainketak Gobernuako Delegazioaren izenean legez kanpo irekitako kontu korrante baten bidez egin ziren 1987, 1988 eta 1989. urteetan eta 400.000 pezetakoak ziren. Diru sarrera hauek Luis Roldanek Guardia Zibileko zuzendaritza hartu zuenean hasi ziren, Iruñean Espainiako Bankuak duen egoitzan. Jakina denez, Luis Roldan eta Antonio Pascual lagunak ziren. Iruñeko polizia ohia, berriz, aipatu dirua isilmandatariak ordaintzeko erabiltzen zuela argudiatu du eta ez dakiela berak dirua hartzen zuen kontu korrantea legez kanpoko edo legala ote den.

ahaztu gabe!



MENDI IRTEERAK

Iruñea: Natura eta mendian barna ibiltzea gustoko dutenentzat Nafarroako Kirol Elkarteak bi mendi irteera antolatu ditu. Igande honetan, aipatu elkarteak Donezteberaino Txaruta mendia igoz egiten den ibilaldia antolatu du, hain zuzen ere.

Ez da hau, Nafarroako Kirol Elkarteak astebururako antolatu duen ekitaldi bakarra. Egun berean beste irteera bat egiten dute elkarteak kideek, Larraungo bailaran dagoen Madotz herritik abiatuz, Aralarko Mikel deuna mendaterainoko ibilaldia prestatu baitute. Hauek izanen dira Nafarroa Kirol Elkarteak urte honetarako prestatu dituen azken mendi irteerak. Hurrengoan, hala ere, beste hainbatetaz gozatzeko aukera izanen dute mendizaleek elkarte honen eskutik.

Asteburu honetako ibilaldi hauei buruz informazio gehiago lortu nahi duenak edo bietako batean parte hartu nahi duenak, Nafarroako Kirol Elkarteak Iruñeko Jarauta kaleko 78. zenbakian duen egoitzara jo behar du. Era berean, norbaitek egoitzatik pasatzeko betarik ez balu, 22-43-24 telefono zenbakira dei dezake.

adi!

Euskalerría Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaintik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Doneztebe

Kantu Txapelketako finala bihar

Hogei bakarleri, talde eta bikote ariko da Donezteben egingo den azken saioan

Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finala egingen dute bihar Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan, arratsaldeko lau t'erdietatik aurrera. Bertan, Leitza eta Burlatako saioetan sailkatutako abeslariak hartuko dute parte. Epaimahaikideek, halaber, Euskal Herriko Kantu Txapelketa nagusian parte hartuko duten nafarrak aukeratu dituzte.

Erredakzioa / Iruñea

AURTENGO Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finala bihar egingen dute Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan, arratsaldeko lau t'erdietatik aurrera. Bertan, osotara, hogei bakarleri, talde eta bikote ariko dira. Burlatan egin zen lehen kanporaketa hil honen 2an, eta bigarrena, Leitza egin zen hilaren 9an. Kanporaketa horietan sailkatutako abeslariak hartuko dute parte biharko saioan.

Biharko saioan Burlatako Imanol Erkizia eta Assona Arrasate bikoteak, Iruñeko Kontrapas taldeak, Tafallako Patxi Azkarate bakarleriak, Larraungo Aitor Goikoetxea eta Gorka Urbizu bikoteak, Aezkoako, Erroibar eta Aurizko Irati taldeak, Altsasuko Itziar eta Erkuden Flores bikoteak, Iruñeko Uztatxar taldeak, Arantzako taldeak, Burlatako Mikel Ordoki bakarleriak eta Urzi taldeak, Leitza Urkaitz taldeak, Iruñeko Arturo Kanpion taldeak, Amairuko Ausartak taldeak, Leitza Txalaparta taldeak, Igantziko Unanu taldeak, Doneztebeko Kurkuxa taldeak,



Andoni Sagastibelza eta Eugenio Arraiza, antolatzaile taldeko kideak.

ARTXIBOKOA

Elizondoko Mari Beltza eta Bihotz Unanua bikoteak, Sunbilloko Joana eta Miren Hernandezena bikoteak eta Leitza Tribua taldeak hartuko dute parte. Saioa lau t'erdietan hasiko bada ere, lehendik entseiatzeko aukera izanen dute partehartzaileek.

Epaimahaian, berriz, Koldo Pastor musikaria, Fermin Iriarte abesbatza zuzendaria eta Amaia Zubiria abeslaria izanen dira, kanporaketetan bezala. Azken

saio honetan, halaber, Maite Idirrin abeslaria izanen dute laguntzaile. Epaimahaia hiru sari banatuko ditu bakarleri, talde eta bikote sailtan. Halaber, datorren urteko ekainean Gasteizen egingen den Euskal Herriko Kantu Txapelketa nagusian Nafarroatik joanen diren hiru odezkariek ere aukeratu dituzte epaimahaikideek. Orain arteko txapelketetan lau ordezkari aukeratzen zituzten lurralde bakoitzeko, baina

saioa gehiegi luzatzen zela-eta aurrean hiruk besterik ez dute lortuko saio nagusirako txartela. Entzuleak halaber, bere saria banatuko du, saioaren bukaeran egingo den bozketaren bidez.

Aurtengo Nafarroako Kantu Txapelketari amaiera emateko, antolatzaileek afaria prestatu dute finalera iritsi diren abeslariarentzat. Doneztebeko bertako jatetxe batean egingen dute saioa amaitutakoan. X

Altsasu

Dendetan artea salgai

■ Sakanako 12 artistaren lanak daude ikusgai

Erredakzioa / Iruñea

ALTSASUKO Dendarien Elkartek antolatuta, Sakanako hamabi artistak Altsasuko dendetan zintzilikatu dituzte euren lanak, erakusketa bitxi eta interesgarria osatuz. Joan den larunbataz geroztik eta hilaren 23a bitartean izanen dira Sakanako artisten obrak ikusgai. Gabonen aurreko kanpaina honetan, «saltzearen artea eta artearen salmenta» batu nahi izan dituzte Altsasuko Dendarien Elkarteko kideak.

Bakaikoako Jose Ramon Anda Goikoetxea eta Asuncion Goikoetxea Fernandez, Altsasuko Jesus Tobar Arratibel, Koldo Arnanz Zufiaurre, Dora Salazar, Jaun Carlos Azkarate, Ziordia-

ko Xabier Urteaga Pozueta, Helena Santano, Jesus Ignacio Miguel Amoztegi, Igancio Luis de Redin eta Beatriz de la Vega eta Etxarri-Aranazko Sagri Mauleon Ezkutari dira Altsasuko erakusketan parte hartzen duten Sakanako artistak. Hauen guztien lana Altsasuko 46 dendetan izanen da ikusgai Gabonen aurreko azken egun hauetan.

Herritarren artean harrera ezin hobea izan du Dendarien Elkartek antolatu erakusketak. Matias argazkidendako Erkudenek, adibidez, bere bezeroek erran diotena aipatu digu: «Denda batetik bestera dabiltzala aitorzen digute askok, bateko eta besteko obrak ikusiz». X

Araitz-Betelu

Kultur Astea abian da

■ Araitz-Beteluren Eguna da etzi Azkaraten

Erredakzioa / Iruñea

ASTEAZKENAZ geroztik Araitz-Beteluko Kultur Astea egingen ari dira herriko biztanleak. Aste honetarako prestatu dituzten ekitaldiak, hala ere, ez dira oraindik bukatu. Gaur, hain zuzen ere, kode penal berria dela-eta intsumisioen egorri buruz mintzatuko dira mahainguruan eta, ondoren, Gari Hertzainak taldeko abeslari ohiak kontzertua eskainiko du.

Bihar, berriz, umeek izanen dute euren neurriko ekitaldirik. Arratsaldeko bost t'erdietan haur jolasak izanen dira Beteluko pilotalekuan eta, ondoren, Zumaiako txaranga ibiliko da herriko kaleetan barrrena giroa alaituz.

Gau partean, herri afaria egingen dute Araitz-Beteluko biztanleek. Bederatzi t'erdietatik aurrera izanen da Atalluko bajejan.

Araitz-Beteluko Kultur Aste honen barruan izanen den ekitaldirik garrantzitsuena, hala ere, igandeko Araitz-Beteluko Eguna izanen da, Azkaraten ospatuko dena. Goizeko zortzietan hasiko da jaiak, argisoinuarekin. Ondoren, hamaikak aldera, kalejira izanen da dantzariekin batera Betelu eta Atallu artean.

Ordu bietan herri bazkaria izanen da eta bertan izanen dira txiste kontalari eta bertsolariak. Bazkaldun ondoren, Oskar eta Aitziber Estanga trikitilarien eskutik dantzaldia izanen da. X

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Ez dago eskubiderik

JOAN DEN uztailaren akaberan, mugimendu antimilitaristako zenbait partaidek intsumisioak bizi duen kinkaren analisi kezagarria karrikaratu zuten. Azaldu zuten, haien irudikoz geldi eta ahul dago gure mugimendua. Harrezkeroztik, egoneza eta urduritasuna hedatu dira antimilitaristen artean, aipatu analisia zuzena dela eta ez dela. Aste honen hasieran Iruñeko kartzelan gertatutakoak, baina, gure kezka guztiak uxatuko ditu. Akabo bi, lau, zortzi lagunez osaturiko plantoak. Hemendik aurrera, gazte nafarrek dozenaka egingen diote uko 3. graduari.

Joan den astelehenean mugimendu antimilitaristak oro har, eta Iruñeko kartzelako intsumitu presoek kolektiboak bereziki, aurrerapauso erraldoia, urrats historikoa eman zuten desmilitarizatorantz daraman bidean barna. Besteak beste intsumituen neke eta izerdiei esker, futbolaria sartu zuten espetxe iruindarrean, eta hori



gutxi bailitzan, musutruk joko daiteke horretan, txanponik sartu gabe. Tumatxa!

Bigarren eskuko futbolaria da, eta, horri esker, garagardo usaina —haren gainean dozenaka erori diren garagardo pitxerren orogari den lurriña— dario. Gorriz margoturiko zurezko oinarri sendoa dauka, kirol honen katedrala den Diez tabernako futbolinakoaren iguala. Zolua, berdegunea, berria du, eta horri esker haren gainean pilotek bizi-bizi korrika egingen dute alde batetik bestera, ate batetik bestera. Haren burdinazko jokalariek eskarmentu handikoak dira —garai batean kolore biziak izan zituzten haien elastikoen margo gastatuak begiradako bat botatzea aski da horretaz jabetzeko— baina oraindik ere joko franko daukate haien oinetan. Panpinok lotzen dituzten metalezko barrak zuzen zuzenak dira, eta bikain egingen dute irrist, suelto-suelto, egurrezko euskarrietatik helduz gero... ais! Laburbilduz, futbolaria mundiala da, eta niri, kaben dena, hilabete besterik ez zait geratzen horretaz gozatzeko, lau aste barru karrikaratu nauten eta. Ez dago eskubiderik. X

'Iruña eta euskara'
jardunaldiak Iruñean

Euskara, iruindarren hizkuntza

'Iruña eta euskara' jardunaldiak egingen dituzte Nafarroako Museoan astelehen eta asteazken bitartean

Nafarroako Museoan *Iruña eta euskara* jardunaldien lekuko izanen da datorren astelehenean hasi eta asteazkenera bitartean. Iruñeko Udalak antolatatu ditu, Nafarroako hiriburuak euskararekin historian zehar izan duen eta egun duen harremana aztertzeke asmoz. Hogei bat hizlarik hartuko dute parte eta Iruñeko hizkuntzen historiaz, ikerketa soziolinguistikoaz eta Iruñeko euskararen egungo egoeraz eta hizkuntz plangintzaz ariko dira.

Edurne Elizondo / Iruña

EUSKAL filologoak, historialariak, soziologoak, euskara teknikariak, Oinarriak gizarte mugimenduko kideak eta Euskal Autonomi Elkartereko eta Nafarroako Administrazioako ordezkariak hiru egunez bilduko dira Nafarroako Museoan *Iruña eta euskara* Iruñeko Udalak antolatatu dituen jardunaldietan parte hartzeke asmoz.

Antolatzaileek hiru ataletan banatu dute Iruñearen eta euskararen arteko harremana betikoa dela frogatu nahi duten jardunaldien programa: *Iruñeko hizkuntzen historia*, *Erroldak eta ikerketa soziolinguistikoak*, *Iruñeko euskararen oraingo egoera* eta *hizkuntz plangintza*. Atal bakoitzaren eduki eta mamiak aztertzeke hainbat parte-hartzaileekin mintzatu gara.

Jose Maria Jimeno Jurio historialaria eta Mikel Belasko euskal filologo eta Nafarroako toponimiako proiektuaren ardura-duna elkarrekin aurkitu ditugu lanean. Iruñeko hizkuntzen historia deitu atalaren barruan mintzatu dira astelehenean, Jose Luis Lizundia, Patxi Salaberri, Fernando Gonzalez eta Xabier Erizerekin batera.

Mikel Belaskok Iruñeko toponimia izanen du aztergai. Gai honi dagokionez, jada prest dagoen *Nafarroako toponimia eta mapagintza* bildumaren garrantzia azpimarratu nahi izan du Belaskok. Toponimiaren alorrean egin den lanaren ildoari jarraikiz, lehen lanak Eusko Ikaskuntzak gerra aurretik egin zituen dienez, Euskal Herriko euskarazko toponimoak bilduz. Gerraren etnaren ondoren, hainbat lan agertu zen, baina aldizkari espe-



Navarrerriko burguak euskara izan zuen ama hizkuntza.

OSKAR MONTERO

zializatueta beti, «batzuk onak beste batzuk txarrak, irregularrak».

Zientifikoki eta ahozko inkestak eginenez *Onomasticon vasconiae* argitalpenak eman zuen hurrengo urratsa. Nafarroari dagokionez, lehen aipatu *Nafarroako toponimia eta mapagintza* bildumak jaso ditu azken lau urteotan bizirik dirauten toponimoak. Lan honen garrantzia azpimarratzeaz gain, bestalde, salaketa ere egin nahi izan du Mikel Belaskok: «Nahiz eta lan hori eginda egon, hilik egonen balitz bezala da, ez baita erabiltzen eta bertan jaso-

zen diren izen askoren orde, beste izen berriak asmatzen ditu Administrazioak».

Lana bukatuta, «euskara Iruñeko hizkuntza» izan dela ondorioztatu du Mikel Belaskok. «Izen gehienak euskaraz daude eta horrek jendeak euskaraz egiten zuela erran nahi du. XVIII. mendera arte ere, izen berriak sortzeko gaitasun osoa du euskarak, nahiz eta ordutik aurrera gaitasun hori murriztu. Euskara Iruñean, beraz, bizi-bizirik egon zen, nahiz eta ez idatzi, begi-bistakoa baita toponimo bat izateko mundu guztiak ulertu behar duela. Iruñeko gehienak euskaraz agertzen dira, Erdi Aroan batez ere».

Iruñeko hizkuntzen historia atalaren barruan baina beste ikuspegi bati helduz, Jose Maria Jimeno Juriok Iruñean euskarak izan duen historia aztertuko du. Jimeno Juriok argi azpimarratu du

mantzea edo batzuetan latina irakasten zuten». Jimeno Juriok, halaber, euskarari buruz «betidanik egon den mitoa» argitu nahi izan du: «Euskaraz herri xehea baino ez zela mintzaten uste izan dute askok, goi mailako herritarrek erromantzea erabiltzen zutela, baina hori gezurra da». Artaxonakoak, hain zuzen, Gaztelak Nafarroa konkistatu zueneko garaia gogoratu du. «Gaztelako erreinuaren ordezkari asko zegoen orduan Iruñean eta euskaraz mintzaten ziren, baita Iruñeko lau parrokietako bikarioak ere».

XVII. mendea jo du Jimeno Juriok Iruñeko euskararen urrezko mendetzat, eta aipatu duenez, «garai hartako herritarrek berezko hizkuntzatat zuten euskara eta atzerritartzat, berriz, gaztelera». Euskararen beharakada, hain zuzen, gaztelearen zabaltzearekin batera etorri zen Iruñean XVIII. mendean geroztik: «Elebitasunak gora egiten zuen bitartean, elebakartasunak behera». Beherakada horretan, halaber, ikastetxeen zabalkundeak ere badu zerikusirik. «Orduan bai, herri xehea bihurtu zen euskararen azken gordetzaila, ez baitzen eskolara joaten».

Euskara eta Iruñeko beste

hizkuntzak • Nahiz eta euskara nagusi izan, hitz egin da, hala ere, beste hizkuntza batzuetan Iruñean. Jimeno Juriok Iruñeko hizkuntzen historia laburra azaldu digu. Erromatarrek iritsiz bat, noski, latina ailegatu zen Iruñera, «baina gutxiengo batek baino ez zuen erabiltzen, agintariak. Herriak euskaraz hitz egiten jarraitu zuen». XI. mendearen amaierarekin, berriz, Donejakue bidearen eta frankoen burgoen sorrera gertatu zen. «Ekarri zuten hizkuntza Frantziako iparraldeko dialektoek osatua zen, denborarekin languedocera bihurtu zena (Languedoc eskualdean erabiltzen zuten okzitanieraren dialektoa)». XIII. mendera bitartean agiriak idazteko erabiltzen zuten hizkuntza da hau.

Frankoek ekarritako hizkuntza honekin batera, bestalde, Nafarroako erromantzea ere erabiltzen zen. XV. mendearen erdialdetik aurrera, ordea, gaztelera nagusitzen hasi zen honen parean. Hizkuntza hauetaz gain, izan ziren beste hainbat hizkuntza marjinatu ere, juduena besteak beste.

Euskarari buruz jarrera ona dago Iruñean • Euskarak egun Iruñean duen egoerari buruz Carlos

Jose Maria Jimeno Jurio: «Kaleko hizkuntza izan da euskara, toponimiak berak baieztatzen duenez. Etxean eta kalean ikasten zen»

Mikel Belasko: «XVIII. mendera arte izen berriak sortzeko gaitasun osoa zuen euskarak, nahiz eta ordutik aurrera gaitasun hori murriztu»

'Iruña eta euskara'
jardunaldiak Iruñean

Vilches soziologoarekin mintzatu gara. Asteartean hartuko du parte Vilchesek jardunaldietan, Xabier Aizpurua, Estebe Petri-zan, Eduardo Aldasoro, Rosa Ramos eta Iñaki Larrañagarekin batera.

Carlos Vilchesek, hain zuzen, orain bi urte Iruñeko herritarren artean egin 1.800 inkestak aztertu ditu, euskararen egoerari buruzko ikerketa soziolinguistikoa osatuz. Ikerketa egin bitartean jakin dituen hainbat datu adierazgarriren berri eman digu Vilchesek.

Oro har, euskararekiko iruindarrek duten jarrera oso positiboa dela erran daitekeela uste du Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak, «inkestan parte hartu duten herritar gehienek euskarak eta gaztelerak tratamendu bera izan behar dutela uste baitute». Halaber, hezkuntza ere, bai euskaraz bai erdaraz ikasteko aukera izatearen alde agertu dira inkestatu gehienak. Erakunde publikoek euskararen inguruan duten jarrerari dagokionez, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak euskararen alde gehiago egin dezaketela uste dute gehienek.


Erdaldunek euskarari buruz duten jarrera ere aztertu eta harritu egin duen datua aurkitu du Carlos Vilchesek: «% 70ek euskara ikasteko interesa agertu dute. Euskara ikasteko plazaratzen dituzten arrazoiei dagokionez, % 35ek beren hizkuntza delako ikasiko luketela diote».

Hizkuntz plangintza etorkizunari begira

Hizkuntz plangintzaz ariko dira jardunaldietako azken egunean, asteazkenean alegia, parte hartuko duten hizlariak. Bertan izanen da Juan Ramon Elorz Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiko kidea, Karmele Rotaetxe, Jokin Azkue, Isidro Rikarte eta Oinarririk euskararen aldeko plataformako kideekin batera.

Juan Ramon Elorzekin Administrazioak euskararen normalizazioa bideratzeko martxan jarri beharko lituzkeen neurriez mintzatu gara. Alor askotatik murrizta eta estua dela erran badute ere, egun indarrean dagoen euskararen legeak abiapuntua izan behar duela uste du Elorzek. Hortik hasita, zirkuitu elebidunen beharra azpimarratu du. Egun Iruñean eta Nafarroan euskarak duen egoerari buruz, halaber, «aldatu» egin dela aipatu du Hizkuntz Politikakoak, «gehiago preziazten da, eta hiztunak ere gai dira Administrazioaren aurrean euren eskubideen bermea eskatzeko».

Administrazioaren lanari dagokionez, herritarren beharrei erantzun egin behar zaiela nabarmendu du Elorzek, eta euskarari dagokionez, «behar eta eskubide horiek bermatzeaz gain, lehen unean sustatu ere egin behar» direla azpimarratu du. Etorkizunari begira, Hizkuntz Politikako Departamentuaren asmoak Nafarroako Gobernuaren asmo bihurtu nahi dituzte, Elorzek aipatu duenez, «euskara behingoz sail guztietan zabal dadin».



Iruñeko Foruen monumentuan euskarazko inskripzioa irakur daiteke.

OSKAR MONTERO



Hizkuntz Politikatik zuzentzen dira euskarari buruzko gaiak.

OSKAR MONTERO

Carlos Vilches: «Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak euskararen alde gehiago egin dezaketela uste dute gehienek»

Kontzientzia piztu, eztabaida sortu

KONTZIDENTZIA multzo batek eraginda bururatu zaio Iruñeko Udalari Iruñea eta euskarari buruzko jardunaldiak antolatzea, Iñaki Azkona Udaletxeko Euskara Zerbitzuko teknikariak azaldu digunez. Izan ere, Iruñean eta euskararen arteko harremanaren historia gogora ekarri duten hainbat gertakizun jaso da azken egunetan. Alde batetik, Jose Maria Jimeno Juriok *Historia de Pamplona* liburuaren argitalpen berria aurkeztu du Txalaparta argitaletxearen eskutik, euskararen historiari buruzko kapitulu berriak erantsiz.

Halaber, Carlos Vilches soziologoak, Iruñeko euskarari buruzko ikerketa lana burutu du, Iruñean bertan egindako 1.800 inkesta oinarritzat hartuz. Toponimiaren alorrean, bestalde, Mikel Belaskok azaldu duenez, prest dago jada Nafarroako Gobernuak abian jarritako gure herrialdeko toponimia jasotzeko proiektua. Gertakizun horietaz gain, azkenik, udalbatza berria izateak ere eragina izan du Azkonaren ustez.

Iruña eta euskara jardunaldien bidez, Iruñeko Udalak bete nahi dituen helburuei dagokionez, hiritar guztiengana heldu nahi dutela azaldu digu lehenik eta behin Iñaki Azkonak. Hala ere, publiko berezi batengana ere propio iritsi nahi dutela azpimarratu du: «Eguneroko lanean ardura dutenak kontzientziatu nahi ditugu, argudioz jantzi, erabakiak har ditzaten».

Jardunaldietan parte hartuko duten hizlariak bezala, Iruñea eta euskara betidanik lotuta egon direla nabarmendu du Azkonak ere, «eta hori jende guztiak bere eguneroko jardueran kontuan hartu beharreko gauza da». Jardunaldi horien bidez lortu nahi denari buruz, halaber, Jimeno Juriok eta Mikel Belaskok ere argi dute, oraindik «euskara mendiko herrien gauza» dela uste duen jendearen pentsamoldea aldaraztea dela xede nagusietako bat. «Iruñea funtsean euskalduna zen erreinu bateko buru» izan dela gogoratu nahi izan die Jimeno Juriok euskara Iruñeko hizkuntza dela zalantzan jartzen duten guztiak.

Carlos Vilches soziologoak beste alderdi baten garrantzia azpimarratu nahi izan du jardunaldien bidez lortu nahi denaz mintzatzean. Bere ustez, hain zuzen, gogoeta piztea da garrantzitsuenak, «jardunaldi hauek denontzako abiapuntu izatea». Halaber, gauzak egiten hasi beharra dagoela ere azpimarratu du, «Iruñean egindako inkestak jarrera ona dagoela frogatu baitu». Izan ere, inkestaren bidez lortutako datuen arabera, euskara Iruñean eremu pribatuan, hau da, familian eta lagunartean erabiltzen da batez ere, eta oraindik esparru publikotik urrun dago. Nafarroako Gobernuan eta Iruñeko Udalean, adibidez, Carlos Vilchesek bere ikerketaren bidez ondorioztatu duenez, «ez da euskararik erabiltzen». X

Xanti Begiristain

Jose Inazio Ansorenari
esker onez

■ Zuetariko askok ezagutuko du ziu aski Jose Inazio Ansorena arrazoi ugariengatik. Hasteko esan dezadan, Piter eta Mirri ere berari dagozkion izengoitiak direla. Mirri pailazogintzan eta Piter musika eta ikuskizunaren munduan.

Ezagutzen duzuenok jakingo duzue ez dela oso handia tamainaz, begi erneak ditu, mugikorra da eta polifazetiko handi samarra, besteak beste. Hau gutzia, pixka bat frogatzeko, hona hemen bere trebetasunak eta, batez ere, bere lanak eta ekintzak: Txistulari bikaina da, txistu irakasle profesionala, konposatzailea, armonizatzailea, egokitzaile eta moldatzailea, ikasliburu batzuen egilea, hainbat eta hainbat artikuluren idazlea, txistuaren afinazioa hobetzeko lan handia egin duena, txistua Fa soila tonalitatean kontserbatorio mailara igotzea lortu zuena, kontzertu-zuzendaria, aurkezlea, aktorea, zenbait programaren zuzendariaren laguntzailea (*Balinda*, *Txiskola*). Hortaz landa, gorago esan dudana bezala, pailazoa eta musika grabaketa ugariaren protagonista.

Grabaketei dagokionez, hemen gogorarazi nahi dut gai eta musika mota franko grabatu direla bere ekimenari esker, esate baterako, disko batzuk txistu talde hutsez osatuak, beste batzuk txistu taldez, perkusio eta metalez apailaturik (Gipuzkoako Dantzak) eta, azkenik, hondarreko urteotan, lau bat diska gutxienez, txistu eta beste instrumentu askoren laguntzaz grabatuak. Bide batez, gogora dezagun Txirri, Mirri eta Txirribitonek grabaturiko zenbait diskotan ere sartua dutela txistu-doinua lagungarri gisa. Eta oraintxe gogoratu dut, era berean, badagoela musikari buruzko euskal hiztegitxo bat; horretan ere esku hartu zuen J.I. Ansorenak bere aholkuaren bidez. Bilduma hau bukatzeko esan behar dut duela bizpahiru urte ere argitaratu zuela beste kanta liburu bat; hartan, Euskal Herriko hainbat abesti sailkatu eta iruzkindu zuen gaika tratatuz. *Txistulari* izeneko aldizkariaren zuzendari ere izana da urte dexentez, eta abar, eta abar.

Ikusten denez, egintza eta aktibitate askoren jabe dugu Joxe Inazio Ansorena. Badakigu jende ugari dagoela asko esaten duena eta gutxi egiten duena. Nik ez dakit J.I. Ansorenak berba franko egiten ote duen; agian bai, baina langile porrokatua dela behintzat, horretan ez dago inongo zalantzarik.

Aurten ere, azken laurotan bezalaxe, garai onean grabatu eta eraman dituzte bi disko Durangoko Azokara J.I. Ansorena eta bere lagunek, bat pailazoen eta beste txistuzaleontzat. Nik, txistulari kaxkarra izanik, baina aldi berean txistuzale fidela, hemendixe eskertu nahi diot *inurri* eta *erle langile*

nekaezin horri, urtero-urtero aukera berria ematen digulako gozaten jarraitzeko berak grabatutako doinu ezti eta atseginak entzuten.

Badakit J.I. Ansorenak berak esana duela txistuak bere mugak dituela eta hainbat esparru beste musikatresna batzuek jana diotela, baina, hala eta guztiz ere, txistuak oraindik jarraitzen du bere txokoa izaten, eta Ansorenaren ekarpenari esker, musika tresna zahar horren zaletuoi urtetik urtera



zabaltzen zaigu gozatu ahal izateko eremu hori. Eskerrik asko, beraz, Piter, zure etengabeko lan handi horregatik! Froga hor dago, hainbat programa eta dokumentaletan aprobetxatzen baitituzte zure grabaketak.

Bide batez aprobetxatu nahi dut aukera hau iradokizun txiki bat egiteko, alegia, nik eta ni bezalako txistulari kaxkarrok edota sasitxistulariok gogotik eskertuko genuke *Txistulari* aldizkariaren argitaratutako balira partitura bariatua gozatzeko, Egiten denari ongi deritzot baina alde berean gabezi handiak somatzen ditut, esate baterako, zergatik ez ote dira argitaratzen, ongi armonizatutako, txisturako eta instrumentu gehiagorako Euskal Herriko edota atzerriko kanta-doinu-dantza eta abar, baina oso ezagunak direnak, arrakasta handia lortu dutenak? Ez dakit, agian ergelkeria hutsa izanen litzateke... ■

Klasiko bitxi • arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Belatarren
erakaspennak (I)

■ *Belattarrak* edo apika Jean Louis Davant Ürrüstoitarrak erabili *Belattarrak* deitura hobetsi beharko Zuberoko sendi idazlaria izendatzeko orduan. Litekeen arabar etorkia alde batera utzirik —hontaz esan Jean Philippe Bela Velez Medrano sendi nafarraren bitartez Belen askazien zuhaitza berreraikitzen ahalegindu zela— gaurkoan Bela zuberotarrak hiztupide.

Nabarrenkoxe eta Oloroe Biarnoko hiriak lotzen dituen bide ertzean dagoen Sangoïn herririkako laborari baten semea zen Gratien Bela, Sohütako Domekera ezkondu zen eta hortik nonbait nobletu. XVI. mende honetan une nahasiak bizi ziren erreforma zela eta. Hortaz ez da aipatu ere egin behar Alli jaunak horren kuttuna duen Leizarragaren itzulpena bera. Nafarroako erregetza, Juana Labritekoa buru, kalbinismora bildu zitzaionean, Belattarrak katoliko genituen oraino. Alabaina erregeren prokuradore ordekoa izatera iritsi zen 1550.ean. Zuberoko sindikoa ere izan zen. Gratien honen semea, Gérard Bela, Catherine Johannekoarekin ezkondu zen. Hauze jada hugonotea. Nafarroako Enrike III.ak 1577an baile eta juze izendatu ere, arazo franko izan omen zituen erlijio aukeragatik, eta denbora luzexka eman zuen Biarnon —oroit bedi 1572.eko San Bartolomearen gaua edo aipatu Juana Labriten semea Ravallac katoliko sutuak hil zuela labankadaz Parisen 1610.ean—. Gérardek bi seme utzi zituen, Isaac bata, Sohütara ezkondu zena, eta Zuberoko jaunaren sindikoa (1612-1660), eta bestea sona haundiko Jakes, Maulera lotua.

Jakes Bela Maulen sortu zen 1586ko otsailaren 15ean. Zuzenbide ikasketak Tolosan egin zituen doktore tesia latinez irakurri zuelarik. Protestante kalbindarra, Lextarreko gorteko abokatua izan zen kostata ere eta erregeren juze eta bailea Maulen eta Othegainen. Papista ertzia zen bere emaztea Joanna Arbiderekin ez zen onlegi moldatu, baina hiru seme izan zituen, protestante iraun Salomon Belaspect eta Felipe Belapoey, eta katoliko bihurtu zen Atanasio Belapeyre. Jakes hau kultura handiko gizona bazen, anitz hizkuntza menderatzen zituena, hala nola, euskara, gaskona-biarnera, frantsa, espiñola, italiara, latina, grekera eta hebraiera. Idazle naroa, lan orohar-tzaile bat ondu zuen, *Tablettes* izenburukoa. Sei liburukiz osatu lan entziklopediko honek 45.000 orrialdetik gora zuen, ale bat galdurik baita. Egun, argitaratzeke dirau, kopia bat Pabeko Archives Départementales delakoan dagoela, eta beste bi Parisen Bibliothèque Nationale deritzanean. F hizkiari dagokion sarreraren *Dictionnaire basque* eta *Compendium de grammaire basque* leudeke, bainan ments dira. Peillenek Jean Philippe hartu zituela uste du. P hizkiaren sarreraren 44 euskal erran zahar edo atsotitz datoz. Mitxelenaren aburuz atsotitz hauen balorea linguistikoa litzateke oro har, Bertrand Zalgize edota Oihenarteren bildumei ezer gutxi erants dakiekela. Ez da harritzekoa garai honetan horrelako grina kausitzea errefrac bildumekiko, Europa osoan zabaldurik zegoen moda bat baitzen, beha bedi Erasmoren *Adagia* bildumari, edo orobat guretako hurbilago datekeen Voltoireren *L'interprète ou traduction du français, espagnol et basque*. Horrelako lan oparoa ontzeko behar adineko iturriez badihardu Christian Desplatek bere artikulua batean, 'Les tablettes de J. Bela: le milieu culturel d'un gentilhomme souletin à la fin du XVIIIe siècle', *Idéologies et pratiques culturelles dans la société basque*, Baionan, 1985.ean, Pabe eta Aturri alderdiko unibertitatearen eskutik.

Berri haboro Bela aiaren azkenetakoa kimu batekin ezkondurik zegoen Gustave Clément-Simonek dakar bere *Le protestantisme et l'érudition dans le pays basque au commencement du XVIIe siècle*. Jacques de Bela, *biographie*. *Extraits de ses oeuvres inédites*, Parisen, 1896.ean. Jakes Bela 1667. urteko maiatzaren 28an zendu zen Zuberoko hiriburuan lauretan hogeita hamaika urte zituela. ■



Nafarroako taldekako txapelketako bederatzigarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 2an jokatu.

J. J. Cortes (Iruñeko Anaitasuna), 2.270 ELOkoa — Iñigo Ganuza (Iruñeko Oberena 'A') 2.115 ELOkoa.

1.e4,e6; 2.d4,d5; 3.Zc3,Zf6; 4.Ad3,c5; 5.c5,Ac5; 6.e5,fZ-d7; 7.Dg4.

Peoiaren laguntzaz, eraso alde horretatik bideratu dute txuriek.

7....,Ef8; 8.Zf3,Zc6; 9.Dg3,a6; 10.0-0,h5; 11.h4,Ae7; 12.Af4,b5; 13.Ze2,Zc5; 14.Ag5,Ad7; 15.aG-d1,Zd3; 16.d3,g6; 17.Zf4,Ag5; 18.Zg5,Zd4; 19.Gc1,Eg7.

Ikusi koadroa. Txuriek eraso joko dute, emaitza ziurra ez bada ere.

20.Zf7,Ef7; 21.Dg6 xa,Ef8; 22.g3,Ga7; 23.Eg2,Ae8.

Beltzak okertu egin dira. 'De7' hobeaz zen. 24.Ze6 xa,Ze6; 25.De6,Dd7; 26.Df6 xa,Eg8; 27.fG-e1,Gh7; 28.e6,Dd6; 29.Gc8,aG-e7.

Erabakitzeok aukera. Txuriek ez dute alferrik galduko.

30.Ge8 xa,Ge8; 31.Dg6 xa,Ef8; 32.Dh7,Ge6; 33.Dh8 xa,Ee7; 34.Dg7 xa,Ed8; 35.Dg8 xa,Ed7; 36.De6 xa,De6; 37.Ge6,Ee6; 38.d4,Ef5; 39.f3.

Beltzek, zer eginik ezean, partida utzi zuten. Eraso ez zuten behin ere kontrolatu.



Jazz gaztea Lizarran

Udaleko Gazteria Batzordeak laugarrenez antolatutako erakustaldia gaurtik igandera bitartean egingo dute

Lizarrako Jazz Gaztearen IV. Erakustaldia hasiko da gaur, Joan Diaz Hirukotearen eta Carmen Canela bakarlariaren eskutik. Besteak beste, halaber, Yerri Jazz Band herriko taldeak eta Mikel Andueza Lizarrako saxo joleak ere hartuko dute parte jaialdi honetan. Udaleko Gazteria Batzordeak antolatu du.

Edurne Elizondo / Iruña

LAUGARREN urtez, Lizarrako Jazz Gaztearen Erakustaldia antolatu du, gaurtik igandera bitartean, Udaleko Gazteria Batzordeak. Egun hauetan zehar Lizarran entzun ahal izanen diren taldeak bezala erakustaldi gaztea bada ere, jazz jaialdi honek bere helburuei eusteko gogo eta asmoa erakutsi du urte hauetan, eta bertan parte hartzen duten musikariak ere gero eta hobeak dira. Nafarroako eta beste lurraldeetako musikariak batuz, jazz musikak Lizarran berezko esparrua duela frogatu nahi dute antolatzaileek.

Herriko kontserbatorioan izanen da aurtengo erakustaldiko lehen kontzertua, Joan Diaz Hirukotearen eta Carmen Canela bakarlariaren eskutik, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Joan Diaz Hirukotea 1992. urtean sortu zen. Joan Diaz piano joleak, Rai Ferrer kontrabaxu joleak eta David Gomez bateria joleak osatzen dute beraien, eta, ikuspegi propioa eskainiz, jazz bertsio estandarrak jotzen dituzte.

Katalunia, Galizia, Aragoi eta Euskal Herriko eszenatoki eta jaialdietan ezagunak dira hirukote horretako kideak, eta kritika beti alde izan dute. Lizarran Carmen Canela bakarlari apartarekin agertuko da taula gainean Joan Diaz piano jole kataluniarraren taldea.

Gaur ere, gaueko hamaika terdietatik aurrera, Kataluniako Riqui Savates Group taldea ariko da Story tabernan. Bluesaren sustraiak dituen musika egiten du Riqui Savatesek (kitarra), Joan Diazek (teklatuak), Ignasi Zamorak (baxu elektrikoa eta ahotsa) eta David Gomezek (bateria) osatzen duten taldeak. Beste hainbat estilo baztertu gabe, jazz eta funk musikaren esparruan mugitzen dira, batez ere.

Angel Celada Quartet Lizarran • Angel Celada Quartet taldea izanen da biharko protagonista bakarra Lizarrako Jazz Gaztearen Erakustaldian, arratsaldeko zortzietatik aurrera herriko kontserbatorioan. Izenak berak argi uzten duenez, Angel Celada bateria jolea da talde horretako buru, eta *Angelitos Negros* bere azken diskoan jasotako kantak hartu ditu emanaldiaren ardatz.



Carmen Canelak Joan Diaz Trio taldearekin abestuko du gaur.

EGIN

Fernando Sanchez: «Gaur egun filme edo iragarkietako musika jazz da eta rock taldeek ere jazzaren armoniak erabiltzen dituzte»

Emak Bakia zigituaren eskutik grabatu du Gasteizen aipatu diskoa Angel Celada Quartet taldeak.

Celadarekin batera, Andrej Olejniczak saxo joleak, Daniel Perez gitarra joleak eta Nando de la Casa teklatu joleak osatzen dute taldea. Soul, jazz eta musika latinoamerikarraren esparruan bat-batekotasunak badu zer erranik talde honen ibilbidean. Bere taldean ezezik, Mecano,

La Orquesta Mondragon eta El Ultimo de la Filarekin batera eta Manolo Tena, Nacho Cano eta Ruper Ordorika abeslariaren ondoan ere egin du lan Angel Celadak.

Lizarrako bertako musikariek ere badute zer erranik, besteetan bezala, aurtengo Jazz Gaztearen Erakustaldian ere. Igandean, hain zuzen, eguerdian, Yerri Jazz Band izanen da kontserbatorioan.

Maite Sanchez, Juan Soltxaga, Victor Sanchez, Pedro Mekoleta eta Fernando Sanchez dira 1987. urtean sortu zen talde horretako kide. Ez dira horiek, hala ere, erakustaldian izanen diren Lizarrako musikari bakarrak, Ramon Diaz Group taldeko saxo jolea den Mikel Anduezak ere hartuko baitu parte. Ramon Diaz bateria jole kanariarrak 1993an sortutako taldea da hau. Getxoko Jaialdian ezaguna. Ramon Diaz eta Mikel Anduezarekin batera, Victor de Diegok eta Joan Martik osatzen dute laukotea. Getxokoan ezezik, Bartzelonako Nazioarteko Jazz Jaialdian ere parte hartu du talde honek eta bere lan berria kaleratu bitartean, *Pues sí* izeneko diskoan jaso ditu bere kantak.

«Guztion ekarpena funtsezkoa da»

JAZZ Gaztearen Erakustaldia orain lau urte antolatu zuen lehenengoz Lizarrako Udaleko Gazteria Batzordeak. Marta Estebanez batzorde honetako koordinatzaileak azaldu digunez, «hiru bat talde zeuden orduan Lizarran eta eurek bultzatuta sortu zen erakustaldia».

Urtetik urtera, gora egin du Lizarrako jazz jaialdiak. «Hasieran hiru talde ekartzen genituen gehienez, baina aurtengo bost ekartzea lortu dugu. Aurtengo kontzertuetako bat, gainera, taberna batean izanen da. Datorren urtean kalera ere atera nahi dugu».

Erran bezala, Yerri Jazz Band herriko taldea da Lizarrako jaialdian parte hartuko duen taldeetako bat. Jazz Gaztearen Erakustaldia lehen aldiz antolatu zutenean ere bertan izan ziren Fernando Sanchez tronpeta joleak zuzentzen duen talde honetako kideak.

Yerri Jazz Banden ibilbidea, hala ere, lehenago abiatu zen, 1987. urtean hain zuzen, eta Fernando Sanchezek dioenez, «nire burugogortasunari esker».

Jazz Gaztearen Erakustaldia, bertako taldeak bultzatzeko balio duela azpimarratu du Sanchezek, «lan interesgarria egiten baita Lizarran». Bere ustez, hain zuzen, Iruña eta Lizarraren artean Nafarroa osoko jazz musikariren kopurua betetzen da. Bestalde, kanpoko taldeak Lizarrako jaialdian egotea ongi iruditzen bazaio ere, «egokiena trukea egotea izan litezake» bere ustez. «Hau da, Kataluniatik, adibidez, Lizarrara etortzen badira, guk ere hara joateko aukera izan beharko genuke. Kalitateari dagokionez, gainera, bertakoak bezain onak gara, ez dugu haiengandik ezer ikasi beharrik».

Katalunian jazz eskola izatea ona iruditzen zaiola aitortu duen arren, «jazz musikan guztion ekarpena da funtsezkoena» azpimarratu du Sanchezek.

Bestalde, Lizarrako Jazz Gaztearen Erakustaldia herriaren duen harrera ona nabarmendu du Fernando Sanchezek, «gutxiengo batek entzuten duen musika dela kontuan hartuz».

Hala eta guztiz ere, jazz musika zuzenean entzutean jendea harritu egiten dela azpimarratu du tronpeta joleak. «Gaur egun, filmeetako edo iragarkietako musika jazz da eta rock taldeek ere jazzaren armoniak erabiltzen dituzte. Entzuleek, beraz, jazz kontzertu batera joaten direnean, identifikatu egiten dute musika». X

◆ Silvia Solorzano ◆ URNGko bozeramailea

«Borrokaren protagonista da emakumea»

Silvia Solorzanok Emakume Internazionalistek antolatu 'Munduko gatazkak: emakumeak zertan dabilta?' hitzaldi sortako lehenengoa eman zuen astelehenean. Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalako (URNG) bozeramailea da eta gerraz, emakumeaz eta Guatemalaz aritu zen Hizkuntza Eskolako aretoan.

Edurne Elizondo / Iruñea


ZAZPI TERDIAK jota hasi zen joan den astelehenean Silvia Solorzanoren hitzaldia. Hizkuntza Eskolako aretoa lepo eginda zegoen. Guatemalarra bi orduz mintzatu zen eta bertan bildutakoek ez zuten bere ahotik ateratako hitz bakar bat ere galdu. Hitzaldia bukatuta, gurekin hitz egiten jarraitzeko prest agertu zen Silvia Solorzano, irribarretsua.

■ **Nola erabaki zenuen Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalan sartzea?**

Exiliatuaren familian sortua naiz, beraz, herentziatik datorkit nire herriko egoerari buruz dudak ikuspuntua. Medikuntza ikasten hasi nintzen eta horrek mugimenduan sartzeko erakargarri bihurtu ninduen. Hogei urte baino gehiago dira URNGn sartu nintzela. Hasiaren mediku gisa sartu nintzen, baina beste hainbat gauza ere egin ditut. Batez ere hezitzaile izan naiz. Azken urteotan, berriz, Guatemalatik kanpo egin dut lan, politika eta diplomaziaren esparruan.

■ **Orain 35 urte sortu zen URNG. Urte hauetan zehar asko aldatu al dira taldearen barruan ikuspuntu eta proposamenak?**

1954 eta 1986. urteen bitartean diktadura militar gogorak bizi izan ditu Guatemalak. Geure herriaren egoera sozioekonomiko



URNGko bozeramailea da Silvia Solorzano.

OSKAR MONTERO

eta politikoa larria zen orduan, baita orain ere, eta esparru politikoan borrokatzeko aukerarik ikusten ez genuenez, URNG sortu zen. Borroka armatua aukeratu genuen boterea eskuratu eta sozialismoa ezartzeko bide gisa, baina hala ere, beti jakin dugu politikoki borrokatzeko aukera izan bezain pronto, horretan saiatuko ginela. 1986. urteaz geroztik gobernu zibilak izan ditugu Guatemalan eta horrek bultzatu gaitu beste borroka bideak bilatzera, nahiz eta gure ekintza militarrek indarrean diraute.

■ **Aldarrikapen politiko eta ekonomikoen gain, beste hainbat gairi buruzkoak ere badira URNGren borrokaren ardatz eta ezaugarri.**

Bai, noski. Egia erran, gure eraldaketa prozesua oso integrala da eta denborak aurrera egin ahala, aldarrikapen eta arazo berrien bozeramaile bihurtu da URNG. Emakumeen aldarrikapenak nagusitu badira ere, nekazari, ikasle, sindikatu eta beste hainbat alorrekin egin dugun lana ere nabarmentzekoa da. Baina erran dudanez, emakumeen eta baita indigenen mugimenduak asko indartu dira azken urteotan. Beste herrietan ez bezala, emakumea Guatemalako borrokaren protagonista bihurtu da. 70eko hamarkadaren erdialdetik gainera, emakume indigenak mobilizaten hasi ziren eta euren nortasunaren adierazgarri den soinekoaren orde, alkandora eta galtza berdeak jantzi zituzten. Prozesu honek guztiak, gainera, hainbat elkarte sortzea bultzatu zuen.

■ **Zer-nolako elkarteak?**

Emakumeek osatutako elkarteak dira gehienak. Emakumeak egituratzen hasi dira. Horien artean Conavigua (Guatemalako

Alargunen Elkarte) da garrantzitsuenetakoa. 14.000 emakume dira elkarte honetako kide gaur egun. GAM izeneko taldea ere aipatzekoa da (Elkarri Laguntzeko Taldea). Unibertsitatean ere bizpahiru talde sortu dira. Lan izugarria egiten dute elkarte hauek guztiak, baita arriskutsua ere, Armada baitute aurrean.

■ **Zein da gaur egun Guatemalako Gobernuaren eta URNGren arteko harremanen egoera?**

1986. urtean lehen gobernu zibila osatu zenetik, politikaren esparruan borrokatzeko aukera aztertzen hasi ginen. Ondorioz, 1987. urtean jada, Gobernuarekin negoziatzen hasteko asmoa genuela plazaratu genuen. Urte hartako saloak, ordea, antzua izan ziren eta 1990. urtera arte itxaron behar izan genuen. Orduan hasi ziren gaur egun martxan diren negoziazioak. Oztopo askori egin behar izan diote aurre negoziazio hauek, baina dagoneko hainbat akordio lortu ditugu, nahiz eta oraindik bide luzea

gelditzen den. 1994 urteko martxoan giza eskubideen alorrean akordioa lortu genuen eta horren ondorioz, Nazio-Batuen Erakundeko begiraleak dira Guatemalan. Bahituak eta torturatuak daude oraindik, baina begirale hauek egoteak lagundu egiten du.

■ **Beste akordiorik lortu al duzue?**

Bai, baina guztien artean lurri dagokiona izan da gatazkatsuen. Gure proposamena argia izan da: produzitzen ez duten lurrek zergak ordaindu beharko dituzte. Izan ere, goseak hiltzen ari den herri batean ezin da produzitzen ez duen lurrik izan. Proposamen hau mahai gainean jarri bezain pronto, Guatemalako jauntxoak sutan jarri dira, eta nola edo hala negoziazio prozesua bertan behera uzten saiatu dira. Horrek argi utzi du bide luze eta zaila dugula aurrean. Poliki-poliki, hala ere, aurrera egiten dugu eta giza eskubideekin bezala, herri indigenen eskubideei dagokien akordioa ere lortu dugu. Abiapuntuak sortzen ari gara.

s o s l a i a

Bere herritik kanpo urte asko eman ditu Silvia Solorzano guatemalarrak. Exiliatuena alaba, exiliatu izan da bera ere. Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalan, hala ere, benetako familia aurkitu zuen orain hogei bat urte, medikuntza ikasten ari zela.

Mediku gisa, beraz, hasi zen URNG erakundean lanean, baina dioenez, «denetarik egin behar izan dut». Hala ere, batez ere hezitzaile izan dela azpimarratzen du: «Heziketa prozesua da finean, Guatemalan orain 35 urte hasi zena».

Erakundeko bozeramaile da egun, baina azken urteetan Guatemalatik kanpo garatu du bere lana, politika eta diplomaziaren alorrean, 1990. urteaz geroztik URNG eta Guatemalako Gobernuaren artean negoziazioak martxan diren bitartean.

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

• Xakea literatura da • D. BRONSTEIN

